

## Filosofia euskal hizkuntzan

*Víctor Gómez Pin*

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Filosofiako katedradun emeritua

Euskal Herriko Unibertsitatean, eraikitze garaian aurkitzen zelarik, Donostiako Zorroaga fakultatean, Filosofia Sailean huts bat zegoen. Edozein unibertsitatek, bere sailetan, katedrak sortzen ditu eta hedatzen ditu, unibertsitateari corpus bat ematearren.

Hemen, proiektua aurrera eramateko, Joxe Azurmendiren presentzia ezinbestekotzat jotzen zen. Bera, urte horietan, Alemanian zegoen. Azurmendik, bere ikerkuntza filosofikoa eta teologikoa alemaniar pentsamenduko hainbat pentsalariren obretan bideratua zeukan (Nietzsche, Marx, Splenger, Bloch...).

Administrazioaren eta instituzioen eskuzabaltasunari esker (Javier Echeverria eta Encarna Cuellar buru-belarri), hori guztia, katedra sortzearena, abiatu zen. Hasiera batean, Azurmendiren presentzia fakultatean irakasle moduan izan zen, eta behin gurean txertaturik aurkitzen zela, jada hainbat urte eman eta gero, katedraren lehen urratsak gauzatzen hasten dira. Hasieran proiektuaren zirriborroak idatzi genituen.

Proiektua ez zen nolanhikoa. Kontuan hartu behar da Espainiako unibertsitate sisteman ez zegoela katedrarik Espainiako hizkuntzatik kanpo; alegia, gazteleraz bakarrik ematen ziren katedra berriak. Ahaleginak handiak izan ziren, imajinatzen duzuen bezala.

Katedraren nondik norakoak administrazioak baimendu zituenean, gogoeta prozesu bati ekin genion Azurmendik eta biok. Bi aukera zeuden. Alde batetik, euskal pentsamenduaren ildoak jorratzea, eta, bestetik, ardatza filosofia euskal hizkuntzan izango zuena. Prozesu luze baten ondoren, azkenean, administrazioaren aurrean katedraren justifikazioa 'Filosofía en lengua vasca' izatea erabaki zen.

Gogoan dut gaiaren inguruko eztabaida txiki bat egon zela. Batzuentzat, ni haien artean, filosofia bakarra dago. Beste batzuentzat, zibilizazioak bezainbeste filosofia daude. Edozein kasutan, filosofiak, historikoki, harreman berezia du zientziarekin, zehazki fisikarekin, *meta-fisika* hitzean agerikoa egiten dena. Zentzu horren lehenetasunak hain dirudi eztabaidaezina, ezen historiografia filosofikoaren topiko bat baita.

Agerian jarri behar den lehenbiziko gauza da zer baldintza zeuden Jonian fisika baten aukera eman zedin, hau da, fisika ahalbidetzen duen *physis*-aren kontzepzio bat. *Grosso modo*, baldintzak hiru ziren:

- Fenomenoen aniztasuna ez da arbitrarioa, beharrezkotasun zorrotz baten menpe dago.
- Beharrezkotasuna ulergarria da.
- Beharrezkotasunaren ulerkuntzak ulerkuntzaren subjektua aldatzen du, baina ez haren objektua (errealismoaren printzipioa).

Abiapuntuan, soilik zientziaren sorrerak ahalbidetu zuen filosofiaren sorrera, eta zehazki esanda: fisikaren sorrerak ahalbidetu zuen metafisikaren sorrera.

Honako hau adierazi nahi dut:

Ez dugu ziurtasunik Txina edo Mesopotamiako zibilizazio handiek ingurune natural bat zuten edo ez zuten, berezko kontzepzio hori zuten. Are gehiago: *physis*-aren kontzepzio hori ez dago ez Homerorengan, ez Hesiodorengan, ez eta poeta gehienetan ere. Aitzitik, inplizituki edo esplizituki, badago pentsalari presokratiko deitzen diren horietan, Talesengandik hasita atomistenganaino, eta, zalantzarik gabe, Aristotelesenganaino. Labur esanda: Physika eta Metaphysika Grezian eman diren ideiak dira. Eta, horregatik, lehen esan dudan bezala, filosofia bakarra dago.

Filosofiak badu bere hizkuntza eta lekua, behintzat hasieran. Filosofiak bere iturburua Jonian du, grekoz; eta ondoren bere izatea beste hizkuntzetan ere hartzen du, horiek bere egiten baitute filosofia eta zientziaren presentzia, polisetan, hirietan. Euskal Herriko Unibertsitatea honen isla da.

Horrela, filosofia gizatasunaren eredu izatera igarotzen da, gurean, gure hizkuntzan jasotzen dugunean.

Eta zein garrantzitsua izan zen euskarazko filosofia katedra bat sortzea, hain zuzen ere filosofiarena!

Urte haietan, Jacques Derrida irakasleak Zorroaga fakultatean ikastaro bat eman zuen. Ikastaroa, hasieran, gaztelaniaz argitaratu zen (*La filosofía como institución*, Bartzelona, Granica, 1984; hitzaurrea: Víctor Gómez Pin), eta ondoren frantsesez. Filosofiak unibertsitatean duen rola inguruko paragrafo bat aipatzen dut:

La primera frontera entre las clases de Facultades reproduce el límite entre acción y verdad. La facultad inferior [así llamada la de filosofía] es totalmente libre cuando se trata de la verdad. Ningún poder debe limitar su libre albedrío o su libertad de juicio a este respecto [...] y Kant ve aquí la condición de una autonomía universitaria [...] La autonomía es la razón filosófica en cuanto que se da su propia ley, a saber, la verdad. De ahí que la facultad inferior se llama Facultad de Filosofía, y que sin Departamento de Filosofía no quepa hablar de Universidad. El concepto de 'universitas' es más que el concepto de una institución de enseñanza e investigación, es el concepto de filosofía en sí misma, y es la razón, el principio de razón como institución. Y Kant nos habla no tan sólo de Facultad sino también de Departamento: «*tal departamento de filosofía debe ser fundado (gestiftet)*» para que haya realmente una Universidad. A pesar de ser inferior respecto al poder, la filosofía debe controlar las demás Facultades cuando se trata de la verdad, «*siendo esta de primer orden*» mientras que la utilidad al servicio del gobierno es de «*segundo orden*» [...] La paradoja de esta topología universitaria es que una Facultad que conlleva el concepto teórico de la totalidad del espacio universitario tenga asignado un lugar particular y se halle sometida, en el mismo espacio, a la autoridad política de las demás facultades y del gobierno que estas representan. (*Ibid.*: 49-50)

Eta liburuko nire hitzaurretik paragrafo bat aipatzeko aukera emango diot nire buruari:

La existencia o no existencia de una disciplina filosófica determina la posibilidad de superar la dispersión del saber y con ello la de alcanzar plenamente la dispersión del saber y con ello la de alcanzar plenamente a constituir una universidad. La función desempeñada por la universidad de Berlín muestra hasta que punto interfieren la cuestión de la universidad y la del acceso de un pueblo a la realización plena de sus potencialidades [...] la presencia de Jacques Derrida en nuestras aulas constituía un símbolo de que con la creación de la facultad de filosofía, la Universidad del País Vasco aspiraba a retomar para sí el modelo de racionalidad propio de las grandes universidades europeas. Para el País Vasco como tal [ello significaba] conformar sus rasgos definitorios (antropológicos, socio-políticos, culturales en general, más en primer lugar lingüísticos) a las exigencias de un irrenunciable espíritu de ilustración. (*Ibid.*: 16-17)

\* \* \*

Bere katedra gauzatu aurretik, Azurmendik bere tesia aurkeztu zuen nire zuzendaritzapean, eta tesiaren ildo nagusiak ikuspegi sozial batetik garatu zituen.

Hemen azpimarratu nahi dugu garai hartan bizi zen krisi sozial eta ekonomikoa oso handia zela. Une korapilatsuak sortu ziren, eta tesiaren ikuspegiak ongi txertatzen ziren gizartean bizi zen egoerarekin, eta kooperatibismoa izan zitekeen krisiari ate bat irekitzeko modu bat.

Azurmendi pentsalari oso arduratsua izan da bere hizkuntzarekin, eta baita ere bere herriko egoera sozialarekin.

Lehen aipatu dut filosofia potentzialki gizakiona dela, eta hori soilik gauzatzen da hizkuntza batek bere altzoan jasotzen duenean. Eta Azurmendiren jarduna, hori gauzatu ahal izateko, funtsezkoa da. Eta denok eskertzen dugu.

## JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)